

Euskal AEn biztanle bakoitzeko BPG handiena duten hamar udalerrietatik zortzitan industria-jarduerak dira nagusi

Euskal AEko hiru hiriburuetan, ordea, zerbitzuak dira aberastasun gehien sortzen dutenak

Euskal AEn biztanle bakoitzeko BPG handiena duten 10 udalerrien artean, zortzi udalerrian industria-sektorea da nagusi, Eustatek argitaratutako datuen arabera, eta bereziki garrantzitsua da Olaberria, Ajangiz, Etxeberrria, Izurtza edo Arama bezalako udalerrietan, horietan guztietan jarduera globalaren % 79,0 gaingitzen baitu.

Biztanleko BPG altuena (eurotan) izan duten Euskal AEko udalerriak eta horien banaketa 4 sektoretan (%). 2017

BIZTANLEKO BPG			SEKTOREKAKO BANAKETA (%)			
LURRALDE EREMUA	Biztanleko BPG	INDIZEA ¹	NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Euskal AE	33.835	100	1,0	24,2	5,7	69,1
Araba/Álava	36.617	108	1,7	32,7	4,8	60,8
Bizkaia	32.791	97	0,9	19,3	5,9	73,8
Gipuzkoa	34.237	101	0,7	27,4	5,9	66,0
Vitoria-Gasteiz	35.225	104	0,2	27,3	5,0	67,5
Bilbao	34.366	102	0,1	4,9	4,9	90,1
Donostia / San Sebastián	41.018	121	0,0	4,8	5,7	89,4
1 Zamudio	446.429	1.319	0,1	44,1	4,6	51,3
2 Olaberria	241.383	713	0,3	79,6	0,5	19,7
3 Ajangiz	215.759	638	0,9	86,5	0,2	12,3
4 Loiu	213.329	630	0,2	22,6	5,5	71,7
5 Zierbena	191.869	567	0,6	71,6	1,1	26,6
6 Berantevilla	169.674	501	4,0	73,9	3,9	18,1
7 Arama	168.510	498	0,5	80,6	1,9	17,1
8 Etxebarria	155.670	460	0,8	91,1	1,2	6,9
9 Izurtza	144.839	428	0,6	84,2	0,7	14,6
10 Aduna	135.256	400	0,7	58,2	2,9	38,2

¹Kokalekua, Euskal AEko balioarekin alderatuta (=100)

Iturria: Eustat. Udal BPG

Zamudio, Olaberria eta Ajangiz dira biztanleko BPG handiena duten Euskal AEko udalerriak

Zamudioko udalerriko enpresek, Bizkaian, Euskal AEko biztanle bakoitzeko Barne Produktu Gordin handiena sortzen dute aurreko urtean. Bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren, Olaberria (Gipuzkoa) eta Ajangiz (Bizkaia) daude. Araban Berantevilla da BPG handiena duen udalerria biztanleko, Euskal AEn seigarren.

Olaberriaren kasuan, udalerrian pisu gehien duten jarduera industrialeko sektoreak *Siderurgia* eta *Erabilera orokorreko makineria* dira. Ajangizen, aldiz, *Plastikozko Produktuak* dira nagusi. Zierbenan, biztanleko BPGri doakionez bosgarren postuan dagoena, jarduera-sektore nagusia *Energia Elektrikoa* da.

Zamudio eta Aduna udalerriek, ordea, banaketa orekatuagoa erakusten dute industria-sektorearen eta zerbitzuen sektorearen artean. Zamudion hori gertatzen da, funtsean, batetik Ingeniaritza Zerbitzuen enpresengatik eta, industriaren partetik, aeronautikari loturikoarengatik, Parke Teknologikoan. Adunan, bestalde, zerbitzuen sektorearen barruan, *Handizkako Merkataritza* nabarmentzen da, eta industriari dagokionez, berriz, *Industria ez-metalikoa*.

Loiun, aldiz, zerbitzuek dute pisurik handiena, aireportu-jarduerari itsatsitako zerbitzuei esker.

Euskal AEko hiru hiriburuetan zerbitzu-jarduerak dira nagusi, oro har hiru Lurralde Historikoetan bezala

Hiriburuei dagokienez, Donostiak erakusten du 2017an Euskal AEko biztanleko BPGrekiko posizio erlatibo altuena, 121eko indizearekin; hau da, biztanleko bere BPG Euskal AEko batezbestekoa baino % 21,0 handiagoa da. Gasteizek 104ko indizea du, eta Bilbo Euskal AEko batezbestekoaren gainetik da apur batez, 102ko indizearekin.

Bai Bilbon bai Donostian, BPGren % 90,0 inguru zerbitzuen sektorean sortzen da, besteak beste, *Higiezin Jardueren* eta *Ostalaritzaren* sektorean. Ezberdina da hori Gasteizekin alderatuta, non ehuneko hori % 67,5ekoa baita, industria-sektorearen ekarpen nabarmenaren ondorioz (% 27,3), batez ere *Automobilgintzan* eta *Kautxuzko Produktuetan* oinarrituta. Industriaren sektoreak, nolana den, pisu oso txikia du bai Donostian (% 4,8), bai Bilbon (% 4,9).

Euskal AEko hiriburuaren Balio Erantsi Gordina (BEG), jarduera-sektoreen arabera. Uneko prezioak (milaka euro)

	Bilbao			Donostia / San Sebastian			Vitoria-Gasteiz		
	2017	2016	Δ%	2017	2016	Δ%	2017	2016	Δ%
Guztira	10.617.038	10.156.358	4,5	6.676.191	6.399.883	4,3	7.717.984	7.493.993	3,0
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	9.280	3.539	162,2	2.805	3.066	-8,5	14.862	16.144	-7,9
Industria eta energia	524.220	468.991	11,8	323.642	337.623	-4,1	2.107.980	2.068.938	1,9
Eraikuntza	517.390	512.066	1,0	380.804	350.481	8,7	384.868	392.328	-1,9
Zerbitzuak	9.566.148	9.171.762	4,3	5.968.940	5.708.713	4,6	5.210.274	5.016.583	3,9
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	2.313.881	2.189.463	5,7	1.375.009	1.304.877	5,4	1.436.839	1.373.414	4,6
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	2.106.065	2.073.680	1,6	1.740.166	1.661.318	4,7	1.637.632	1.577.355	3,8
Gainerako zerbitzuak	5.146.202	4.908.619	4,8	2.853.765	2.742.518	4,1	2.135.803	2.065.814	3,4

Iturria: Eustat. Udal BPG.

Balio Erantsi Gordinaren (BEG) guztizko **bilakaerari** dagokionez, 2017an hiru hiriburuak aldakuntza positiboa izan dute aurreko urtearekin alderatuta, eta Bilbo izan da urte arteko hazkunde-tasa handiena izan duena (% 4,5); ondoren, Donostia (% 4,3) eta Gasteiz (% 3,0). Sektoreka, *Zerbitzuek* ekartzen diote gehien hazkundeari hiru hiriburuetan. Gorakada, batez ere, *Merkataritza*, *Ostalaritza* eta *Garraioko* jardueren hazkundera oinarritzen da.

Biztanle bakoitzeko BPGren balio handienak dituzten hiru eskualdeak Araban daude


Eskualdeka, Arabako lurraldean daude biztanle bakoitzeko BPGren balio handienak ematen dituzten hiru eskualdeak, eta Arabako Errioxa da indize handiena duena (194) Euskal AEko batezbestekoarekin alderatuta (100). Eskualde horren barruan, Laguardia

(386), Villabuena de Álava/Eskuernaga (326) eta Samaniego (233) udalerriak dira indize handienak dituztenak, eta, horietan guztietan, indizearen balio handia *ardogintzaren sektoreari* lotutako industria-jardueratik dator.

Arabako Ibarrekin (156) eta Gorbeialdearekin (137) osatzen dira lehen hiru tokiok. Laugarren, bosgarren eta seigarren daude, hurrenez hurren, Bizkaiko Durangaldea (118), Gipuzkoako Debagoiena (112) eta Arabako Mendialdea (109).

Arabako Errioxan bezala, Arabako Ibarrek, Gorbeialdea eta Goierri eskualdeetan BEGren % 53 baino gehiago industria-jardueretan oinarritzen da.

Biztanleko BPGren banaketa Euskal AEn, eskualdeka. 2017



Iturria: Eustat. Udal BPG

Gainerako eskualdeetan, ordea, zerbitzu-jarduerak dira nagusi, batez ere Bilboaldea (% 78,9), Donostialdea (% 78,0), Bidasoa (% 75,8) eta Enkartzioak (% 71,9) bezalako eskualdeetan, guztiak ere Euskal AEko batezbestekoaren gainetik (% 69,1).

Ohar metodologikoa:

Datuak hobeki interpretatzeko, **Udal BPG** eta **Udal-errenta** bereizi behar dira; BPG ekoizpenari, aberastasunaren sorrerari lotuta doa, eta ekoizpen-establezimendu garrantzitsuak dituzten udalerrietan kontzentratzen da. Errenta, aldiz, pertsonen eta haien bizilekuari lotuta dago.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62